

Baretasunaren Dekalogoia **(Joan XIII.a Aita Santuari egotzia)**

1.-Gaurkoagatik soilik, egun hau bakarrik bizitzen saiatuko naiz, neure bizitzako arazo guztia dena batean konpondu nahi gabe.

2.- Gaurkoagatik soilik, neure itxuraz ardurarik handiena izango dut, adeitsu neure portaeran, ez dut inor kritikatu, ez dut inor hobetzeko edo zigortzeko asmorik biziko, neure burua baizik.

3.- Gaurkoagatik soilik, zoriontsu izango naiz zorionerako kreatua izan naizelako ziur, ez beste munduan bakarrik, baita oraingo honetan ere.

4.- Gaurkoagatik soilik, datorkeenari egokituko natzaio, pentsatu ere gabe datorkeena behar zaiola egokitu nire gogoari.

5.- Gaurkoagatik soilik, hamar minutu eskainiko dizkiot irakurgai on bati, gogoan izanik, janaria gorputzaren bizitzarako on den bezala, hala dela beharrezko irakurgai on bat arimaren bizitzarako.

6.- Gaurkoagatik soilik, ekintza on bat egingo dut eta ez diot inori esango.

7.- Gaurkoagatik soilik, ekintza on bat egingo dut, gutxienez, egin nahi ez nukeena, eta, neure sentimenduetan iraindurik sentituko banintz, saiatuko naiz inork jakin ez dezan.

8.- Gaurkoagatik soilik, egitarau zehatz bat ezarriko diot neure buruari. Agian, ez dut zehatz-mehatz beteko, baina idatziko dut eta bi zoritxar saihestuko ditut: presa eta zalantza-malantza.

9.-Gaurkoagatik soilik, sinetsiko dut, datorkeenak kontrakoa agertu arren, Jainkoak arreta handia duela nitaz arduratzeko, munduan beste inor bizi ez balitz bezala.

10.- Gaurkoagatik soilik, ez dut beldurrik izango. Bereziki, ez naiz beldur izango eder denaz gozatzeko eta ontasunean sinesteko.